



## **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN 2020KO AZAROAREN 17KO BILKURAREN AKTA.**

Plataforma telematikoaren bidez, eta 2020ko azaroaren 17ko 17:00etan, erakundearen Artezkaritza Kontseiluaren bilkura telematikoa hasi da, eta honako pertsona hauek bertaratu dira:

- Kontseiluburua: Beatriz Artolazabal andrea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailburua / GLEAko burua
- Bokala: Iker Atxa jauna, Lehendakaritzako aholkularia, Jonan Fernandezen orde. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Osasun Sailburuaren Kabineteko zuzendaria. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Fernando Iturriaga Ancín jauna, Programa eta Ikasketen aholkularia. Ekonomia eta Ogasun Saila, Hernando Lacalleren orde. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Jone Fernandez andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria, Bittor Orozen orde. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Leixuri Arrizabalaga andrea, Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko burua. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Oihana Etxebarrieta andrea, Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea. (bertaratze telematikoa)
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Bilkuran izan da halaber, Josean Rodriguez Sanz jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea.

Bestalde, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko, honako hauek ere bertaratu dira: Ainara Arrieta Archilla andrea – Koordinazio Teknikoaren arduraduna, eta Blanca Pérez andrea, Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna, biak Elankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziakoak.

## **Sarrera**

Beatriz Artolazabal sailburuak eman dio hasiera bilkurari, eta, parte-hartzaileak Kontseiluan aurkeztu ondoren, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiken Sailaren aurkezpena egin da:

Sail berria da, eta bertan bere dimentsioa eta pisu espezifikoak ditu arlo bakoitzak:

- Funtsezko politiken arloa, hala nola bake- eta bizikidetzak-politikak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei laguntzeko arloa, edo etorkizuneko espetxe-politikarena.
- Gobernu honen nortasun-ezaugarrien arloa, hala nola giza eskubideen sustapena, memoriaren eraikuntza eta garapenerako lankidetzak.
- Eta botere judizialari bere eginkizunak betetzen laguntzeko eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema koordinatzeko arloa, gure ongizate-ereduaren laugarren oinarria.

Gure arlo guztien arteko lotura da, alde batetik, giza eskubideen eta bizikidetzaren sustapena eta defentsa, Sailaren ekintza egituratuko duen gune edo ardatz gisa; eta, bestetik, aukera-berdintasuna, pertsonen beren bizi-proiektuak ahalik eta autonomia handienarekin garatu ahal izan ditzaten, bizitzaren zentzu edo jomuga gisa.

Giza eskubideen eta bizikidetzaren defentsa eta sustapena da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailaren eta haren lau arloetako bakoitzaren ekintza egituratuko duen ardatza. Honela egituratua dago:

- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua.

Kabinetearen Zuzendaritza  
Komunikazio Zuzendaritza  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Gaztaroa Zuzendaritza

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea administrazio-erakunde autonomoa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailari atxikia dago, eta sailburuaren mende dago zuzenean.

- Justizia Sailburuordetza

Justizia Zuzendaritza  
Justizia Administrazioako Zuzendaritza  
Justizia Eraberritzeko Zuzendaritza

- Gizarte Politiketako Sailburuordetza

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.  
Familia eta Haurren Zuzendaritza.  
Migrazio eta Asilo Zuzendaritza

- Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako Sailburuordetza

Giza Eskubideen eta Aniztasunaren Zuzendaritza

GOGORA, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua administrazio-erakunde autonomoa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailari atxikia dago, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako Sailburuordetzaren bidez.

Elankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailari atxikia dago, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako Sailburuordetzaren bidez.

Azkenik, araudiak aurreikusten duen bezala, Artezkaritza Kontseilua da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren erabaki, administrazio eta kontrolerako organo goren.

Sarrera eta aurkezpena egin ondoren, gai-zerrendari hasiera eman zaio:

1. *2020ko uztailaren 17an egindako bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.*
2. *2020ko proiektuetarako laguntzak emateko proposamena onartzea, hala badagokio.*
3. *2021erako aurrekontu-aurreproiektuaren proposamena onartzea, hala badagokio.*
4. *Galde-eskeak*

**1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.**

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2020ko uztailaren 17ko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako guztien aldeko botoarekin.

**2. 2020ko proiektuetarako laguntzak emateko proposamena onartzea, hala badagokio.**

Proiektuetarako laguntzen deialdia (PRO) da Elankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren deialdirik garrantzitsuena, bai funtsen bolumenagatik (32 milioi euro), bai sustatzen dituen agenteen eta ekintzen kopuruagatik, eta bilkura honetan

onartzea proposatu da. Proposamen horrekin 77 proiekturi lagunduko litzazieke, modalitate desberdinetan (lankidetzaz, prestakuntza eta laguntza teknologikoa eta hezkuntza), eta lankidetzarako euskal politikaren ildo estrategikoak indartzen ari dira: sektore-mailan, emakumeen ahalduntzea sustatzen duten ekimenak nabarmentzen dira, eta, geografia-mailan, nagusiak Latinoamerikako herrialdeak badira ere, Afrikari emandako bultzada nabarmentzen da.

Aldez aurretik informazioa eman da, proiektuen zerrenda osoarekin batera.

Ainara Arrieta Koordinazio Teknikoaren arduradunak aurkeztu ditu deialdiaren laguntza-proposamenaren elementu garrantzitsuenak.

Azalpenak eman ondoren, Kontseiluko kideei dagokie laguntza emateko proposamena onartzea. Proposamena onartu egin da, aldeko 8 botorekin eta 3 abstentziorekin (zehazki, Sofía Marroquín, Josu Urrutia eta Patricia Bárcena).

### **3. 2021erako aurrekontu-aurreproiektuaren proposamena onartzea, hala badagokio.**

Araudiak adierazten duen bezala, Artezkaritza Kontseiluaren eginkizunen artean dago "Agentziaren urteko aurrekontuaren aurreproiektua egitea". 2021eko diru-sarreraren estimazioa eta Agentziako zerbitzuek planteatutako gastuaren estimazioa kontuan hartuta, aurrekontuaren aurreproiektu hau egin da. Artezkaritza Kontseiluari dagokio onartzea, Gobernu Kontseiluari bidaltzeko.

Aurreko urteekin alderatuta, aipagarria da 1. kapituluaren gehikuntza, plantillan 8 lanpostu gehiago daudelako, hori egiteke baitzegoen. Beste bi alditan Artezkaritza Kontseilu honetan aztertu eta onartu zen bezala, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak Agentziaren langile-kopurua handitzeari buruz 2018ko irailaren 27an egindako txostenaren ondorioz, erabaki zen 2 fasetan handitzea Agentziaren langile-kopurua:

Hala, 2020an egin zen langile-kopuruaren lehen handitzea, 11 langile hartuta. 2021ean amaituko da handitze hori, falta ziren 8 langileak hartuta. Guztira, 19 langile berri, Funtzio Publikoaren nahitaezko txostenak agindu bezala.

Horrela, eta Gaztelako Ateko egoitza berrira lekualdatzearekin batera, finkatuta geratu da Agentziaren egitura. Argia da Eusko Jaurlaritzaren mezua, garapenerako lankidetzaren aldeko apustua egin baitu, politika garrantzitsu bezala eta etorkizuneko politika gisa.

2. kapituluari, 2020an bezala, aurrekontua esleitu zaio aurten egoitza berrian sor daitezkeen ezustekoei aurre egin ahal izateko.

2021. urte honetan eman beharreko dirulaguntzei dagokienez, 14.181.672,13 euro izango dira deialdi berrien lehen ordainketetarako.

Blanca Perez Agentziako Administrazio eta Zerbitzuen arduradunak aurkeztu ditu 2021eko aurrekontu-aurreproiektuaren proposamenaren elementu garrantzitsuenak.

Aurkezpenaren, galderen eta azalpenen ondoren, bozkatu egin da 2021eko Aurrekontuen Aurreproiektua.

Onartu egin da aldeko 7 botorekin eta 4 abstentziorekin (zehazki, Sofía Marroquín, Josu Urrutia, Patricia Bárcena eta Ohiana Etxebarrieta).

Eskatu da aktan jasota gera dadila, aitortzen bada ere pandemia-testuinguru honetan lankidetz-aurrekontuari eusteko egindako ahalegina, Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legean ezarritako helburua ez betetzearen ondorio dela abstentzioa.

#### **4.- Galde-eskeak**

Paul Ortegak 2020ko ekitaldia orain arte nola gauzatu den azaldu du.

Ez denez beste gairik planteatu, bilkura amaitutzat jo da. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Artezkaritza Kontseiluaren hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazi da.

OE. Beatriz Artolazabal andrea,  
Agentziako eta haren Artezkaritza  
Kontseiluko burua, EAeko lehendakariak  
eskuordetuta (11/2017 Dekretua,  
apirilaren 25ekoa)

Paul Ortega Etcheverry  
Artezkaritza Kontseiluko idazkaria  
GLEAko zuzendaria